

ZAINZA EKOSISTEMA PUBLIKO- KOMUNITARIOAK INDARTZEN

DIAGNOSTIKO DOKUMENTUA
2021eko URTARRILA

EDUKIA

1. Metodologia.....	4
2. Emaitzak.....	5
3.1. Zaintza ulertzeko abiapuntua: Zaintzaren balio publikoa.....	5
3.2. Komunitatea ulertzeko abiapuntua.....	8
3.3. Zaintza Sareen azterketa herriz herri.....	11
Tolosa.....	11
Oiartzun.....	13
Donostia.....	14
Errenteria.....	15
3.4. Zaintza Sareen azterketa orokorra.....	16
Sareen sorrera.....	17
Sarearen funtzionamendua eta ezaugarriak.....	19
Jasangarritasuna eta sisteman txertatzeko aukerak.....	22
3.5. Lan publiko-komunitarioa.....	25
4. Ondorioak.....	28
4.1. Zaintza sareen inguruko ondorioak.....	28
4.2. Zaintza ekosistema publiko-komunitarioak eraikitzeko bidean.....	29
Bibliografia.....	33

Eguno gizarteak planteatzen dituen arrisku eta beharriaz, pandemia kasu, gobernantza eredu komunitario eta parte hartzaileak eraikitzea eskatzen dute. Gizarte esku-hartze eredu eta zaintza estrategia hegemonikoak, banakako joerakoak, zalantzan jartzen hasiak dira egungo arazoei erantzuna emateko duten gaitasun eskasagatik (Karagkounis, 2019), eredu komunitario eta kolektiboen gaineko interesa handitzen doan bitartean (Pastor, et al., 2019). Politika eta gobernantza komunitarioetaranzko joera modu askotan gertatzen ari da, izan esku-hartze eredu berrien bidez, ikerketa parte-hartzaileen bitartez (Suarez-Balcazar, 2020), zerbitzuen koerakuntza (Osborne, 2018) edota koprodukzioan oinarrituta (Bell y Pall, 2018; Ward, et a., 2018) edota zaintza kudeatzeko modu kooperatiboen eskutik (Vega et al., 2018).

Dokumentu hau Hiritik-at, Parean eta Deustuko Unibertsitateak garatzen ari diren ikerketa- parte hartzailearen lehenengo fasearen emaitza da. Lehen fase honen helburu nagusia, konfinamendu garaian sortutako zaintza sareek eta udal ezberdinek zaintzaren eta elkarlan publiko-komunitarioaren inguruan egindako hausnarketa biltzea izan da. Modu honetan, zaintza eta gobernantza eredu publiko-komunitarioak eraikitzeke lehen urratsa eman egiten da, alegia, gaiaren inguruko ezagutzan sakontzea.

Sarreraz gainera, dokumentua hiru ataletan banatuta dago:

Lehenik, informazioa biltzeko jarraitu den metodologia azaldu egiten da, modu laburtuan. Bigarrenik, informazioaren analisisan identifikatutako gako nagusiak azaltzen dira, lau azpiataletan sailkatuta:

- 1) zaintza ulertzeko abiapuntua.
- 2) komunitatea ulertzeko abiapuntua
- 3) zaintza sareen azterketa
- 4) Lan publiko-komunitarioaren gaineko hausnarketa.



Eta azkenik, hirugarren atalean, lanaren ondorio nagusiak azaltzen dira.

1. Metodologia

Ikerketa parte-hartzaile honen helburu nagusia zaintza ekosistema publiko-komunitarioak garatzea bada ere, lehen fase honen helburuak zehatzagoak izan dira. Konkretuki, hurrengo helburuak landu dira:

- 1) Ehun komunitarioaren eta eremu publikoaren arteko sinergiak aztertu.
- 2) Zaintzari dagozkion gertuko politika publikoen gainean hausnartu.
- 3) Zaintza duinaren eztabaida eta korapiloari ekarpen baikor bat egin.

Burutu den azterketa metodologia kualitatiboetan oinarritzen da, konkretuki elkarrizketak eta eztabaida taldeak burutu dira. Hauek herrika antolatu dira eta udalerrri bakoitzean, udaleko zinegotzi edota teknikariek, zaintza sareetako partaideekin eta 3. sektoreko erakundeetako ordezkariekin egin izan dira. Kasu guztietan, burutu den lehen saioa udal bakoitzeko arduradun batekin izan da, informazioa jasotzeko zein hurrengo elkarrizketak planteatzeko. Guztira, 23 pertsonak parte hartu dute proiektuaren diagnostiko fasean. Taulan laginaren banaketa azaltzen da, herri bakoitzean egindakoaren arabera.

	Donostia	Errenteria	Oiartzun	Tolosa
Partaideak	n=7	n=1	n=5	n=10
Elkarrizketak	Elkarrizketa 3 n=1 (admin. publikoa) n= 2 (sareetako partaideak)	Elkarrizketa 1 n=1 (admin. publikoa)	Elkarrizketa 3 n=4 (admin. publikoa) n= 1 (sareetako partaideak)	Elkarrizketa 2 n= 3 (sareetako partaideak-eragileak)
Eztabaida taldeak	Eztabaida talde 1 n=4 (admin. publikoa)			Eztabaida talde 2 n=8 (admin. publikoa)

2. Emaizak

Batutako informazio guztia, transkribatua eta aztertua izan da, analisi tematiko baten bitartez, aurretiaz identifikatutako gai nagusietan, elkarrizketetatik ateratako informazioa sailkatuz. Testuan zehar planteatzen diren gai eta ideiekin batera, elkarrizketetatik ateratako pasarteak aurkezten dira modu testualean, egindako analisia sostengatzen duten ideien adibide modura.

3.1. Zaintza ulertzeko abiapuntua: Zaintzaren balio publikoa.

Zaintza hizki larriz aipatzerakoan, ez gara zaintza aktibitate konkretu batez ari, baizik eta jendartean, Gipuzkoan kasu honetan, kalitatezko bizitza sustengatzeko egiten diren lan multzo eta kate konplexuez ari gara. Egunerokoan egiten de lan multzo erraldoi hori, zeinak pertsonak, instituzioak, merkatua eta komunitateak era estu batean lotzen gaituen (Daly eta Lewis, 2000; Tobío et al., 2010). Oso agerikoa menpekotasun egoeran dauden pertsonen bueltan egiten dena (hirugarren adina, haur eta aniztasun funtzionala dutenen kasuan), baina ez horretara mugagarria. Izan ere, denok behar dugu, tamaina batean edo bestean zainduak izan eta zaindu, inter-dependienteak garen heinean (Gilligan, 2013). Zaintza modu zabalean ulertua, beraz, honela definitu genezake: *Kalitatezko bizitza sustengatzeko egiten diren lan multzo eta kate konplexua*. Modu teorikoan, kate honetan agente edo esfera ezberdinak parte hartzen dute: 1) Arlo publikoa, 2) merkatua (eta tartean Hirugarren Sektorea), eta 3) komunitatea (norbanakoak, familiak eta elkarteak).



Zaintza, bizitzak sostengatzeko elementu nagusia bada, politika publikoen erdigunean egon behar dute etengabe. Hau da, bai ikuspuntu indibidual zein sistemiko batetik, gure bizitzaren edozein esparrutan zaintzak presentzia daukan heinean, politika publiko guztiek daukate zeregin eta zeresana. Hortaz, zaintzaren zeharkakotasuna aitortu behar dugu, politika publiko guztien diseinuen helburua izanik. Zaintza ez da departamentu konkretu bati egokitzen zaion enkargua, baizik eta departamentu ezberdinak zeharkatzen dituen elementua.

Egungo egoeran, ikuspuntu publiko edo instituzional batetik, zaintza Gizarte Zerbitzuen esparruaren barruan egokitzen den “arazo” bat da, eta menpekotasun edo zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen arretara bideratzen da batez ere. Hortaz, zaintza sistema publikoaz ari garenean, askotan menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta eta artatzera erreferentzia egiten dela interpretatu daiteke. Lan honen ikuspuntutik, ordea, ikuspegi orokorrago eta holistikoagoa ematen zaio.

Honekin lotuta, nabarmendu behar da zaintza instituzionalak normalean eguneroko ekintza basikoak bermatzean zentratu egin izan dela. Hau da, elikadura, osasuna, higiena, etab. bezalako zaintza fisiko edo materialek eginkizun instituzionalaren arreta hartzen dute. Dударik gabe, hauek ezinbestekoak dira bizirauteko, baina badira ere zaintzaren beste alor batzuk, materialak baino immaterialak direnak (emozionalak edo psikologikoak direnak), pertsonen arlo sozial eta erlazionalarekin zerikusia dutenak. Egungo zaintza eskema instituzionalean, hauek bigarren maila batean geratzen dira. Bereziki zaintza publikoaz ari garenean, sistemak nagusiki behar materialei erantzuna ematera bideratzen dela esan dezakegu, hutsune eta gabezi argiak aurkeztuz arestian aipatu dugun arlo inmaterialari erantzuna emateko. Egungo egoeran, familiak (eta hauen barnean bereziki emakumeak) edota lagunak, arduratzen dira gehien bat behar inmaterialen asetzeaz.

Zaintza irrifar bat ematea da. Ez da soilik materiala. (admin. publikoa)

Zaintza, erakundetik, osasunetik, oso fisikoak dira. Falta da arlo soziala, adibidez heriotzaren inguruan lan egitea... baina patologizamos cosas que son sociales. (admin. publikoa)

Arlo publikoak zaintzan edo zaintza sistemetan daukan erantzukizuna aztertzerakoan, beraz, hurrengo galdera planteatzen da: *Zaintza zeinen ardura da?* Galdera honi modu sinplean erantzunez eta teoria nagusiei erreparatuz, esan genezake zaintza arestian aipatutako esfera edo agente guztien erantzukizuna dela, bakoitzak funtzio konkretu bat daukalako. Edo beste era batera esanda, bakoitzak behar mota batzuei besteak baino

modu egokiagoan erantzuna emateko gaitasuna daukala. Fantovaren (2014) planteamendua jarraituz, esfera edo agente ezberdinen artean ez dago “ekibalentzia funtzionalik”, hau da, batek egiten duen lana, ezin du besteak modu berean ordezkatu. Beste era batera esanda, Estatuak ordaindutako langile batek edo lagun batek hornitzen dituzten zaintza motak eta asetzen dituzten beharrak ezberdinak dira.

Orain bai, nahiz eta zaintza erronka kolektibo bat den, eta agente ezberdinak parte hartzen duten, bakoitzak bere posiziotik, balio publiko edo komun bat bezala ulertzen badugu, erakunde publikoek paper berezia daukatela nabarmendu beharko genuke. Ondorioz, *zein da arlo publikoaren ardura zaintza sistemetan?* Alde batetik, zaintzarako baliabideak edo zerbitzuak bideratu eta hornitzea arlo publikoaren eskumen argia dela onartzen da. *Baina ba al daude betebeharrak gehiago?* Arlo publikotik zaintza sistemak hobetzeko modu gehigarriak daude?



Zentzu honetan, planteatu du zaintza sistema publikoek badutela ikuspuntu erlazional eta emozionala integratzeko beharra, baina ez da arlo publikoak soilik edo bakarka egin behar duen prozesua. Goian aipatu diren esfera eta agente ezberdinen arteko funtzio ezberdinak eta hauen konplementaritatearen ideia berreskuratuz, komunitateak izugarriko balioa du arlo honetan, eta hortaz, erantzukizun partekatua izan beharko litzatekela planteatzen da.

Gai honen harira, planteatu egiten da arlo publikoa, agian, ez litzatekela zaintzaren esparru honetan sartu beharko. Alegia, ongizate emozionala bermatzean. Eta badaude arrazoiak planteatzeko arriskutsua izan daitekela behar emozionalak asetzaren eskumena instituzio publikoen esku usteak.

Zaintza oreka emozionala mantentzeko balio, eta hori instituzionalizatzea, arriskutsua izan daiteke. Hori norbanakoan ikusten dut, erakunde publikoetan baino. (Arlo publikoa- profesionala)

Zentzu honetan, planteatzen dena ez da behar emozionalak asetzaren eskumena publikoa izan behar denik, baizik eta publikoak zaintza sisteman daukan zentralitatea eta ahalmena kontuan izanda, arlo emozionalari erreparatzea. Zaintza emozionala familiak eta komunitateak inor baino hobeto egin dezakela onartuta, esfera hauen arteko elkarlana da bultzatu beharko litzatekela.

Sare komunitarioak komunitarioa izaten jarritu behar du eta eremu publikoak publiko, baino elkarrekin bidea egitea ezinbestekoa da. Erantzunkizun batzuk ezin dira komunitatearen esku utzi, erantzunkizun handikoak direlako eta administrazioaren ardura direlako. (Admin. Publikoa)

Elkarrizketetan aipatu den moduan, zaintzaren kodiseinua egin beharko litzateke. Honek ez du esan nahi zaintza “do it yourself” (Klein & Millar, 1995) edo “norberak egin dezala” politika bat izan behar denik, Ongizate Estatuaren erreforma neoliberalak edozein eremutan defendatzen duten modura, (etxebizitza politikak izanik adibiderik argiena) baizik eta agente ezberdinen artean erantzukizun publikoko “ongizate mix” bat garatu behar dela, esfera ezberdinek izan dezaketen funtzioa integratu eta potentziatuz.

Azkenik, zaintzaren kodiseinuaren harira, badago eskala kontu bat. Gutxienez, bi mailatan egin beharreko kodiseinua ezberdindu ahalko genuke: Alde batetik, sistema instituzionalaren errekurtsoen kodiseinua maila makroan (zenbat baliabide, non egoitzak, nolakoak, zenbat langile...), non agente edo interlokutore espezializatuak parte hartzen duten (alderdiak, sindikatuak, elkarteak, unibertsitateak, etab.); eta bestetik, inguru edo maila lokal eta mikroan antolatzen diren zaintza sistemen diseinua (non instituzio, elkarte eta baliabide lokalak parte hartzen duten, norbanako eta erabiltzaileekin batera zerbitzu edo proiektu konkretuen inguruan).




3.2. Komunitatea ulertzeko abiapuntua.

Dudarik gabe, komunitatea oso kontzeptu zabala da, errealitate ezberdin asko definitzeko erabiltzen dena egunerokotasunean. Hortaz, azpimarratu behar da

kontzeptura egiten dugun hurbilpena helburu pragmatiko bat daukala, politiken edo gobernantzaren ikuspuntutik unitate operatibo moduan ulertu ahal izateko. Zer da beraz komunitatea? edo hobeto esanda, nola ulertzen dugu komunitatea? Komunitatearen definizio itxi bat eman baino, hau da, komunitatea zer den eta zer ez den definitu baino, komunitatea ulertzeko elementu batzuk azpimarratu ditzakegu.

Lurraldetasuna. Komunitatea inguru fisiko batean garatu egiten da. Nahiz eta argudiatu dezakegun komunitateak “imaginatuak” (Anderson, 2006) direla eta konponente psikologiko eta emozional baten ondorio direla, komunitate sentimendu lokalizatua da, espazio fisikoa behar du garatua izateko.

Eskala. Aurreko ideiarekin erlazionatua, lurraldetasuna ezinbestekoa dela onartuta, lurralde edo espazio honen eskala edo tamainaren inguruko eztabaida zabaltzen da. Modu intuitiboan, auzoa edo herria komunitatearekin parekatu egin da askotan, auzo edo herri bat komunitate bat dela aditzera emanez. Lurraldetasunak ordea ez du espazio batek bere osotasunean komunitate bat dela suposatzen, baizik eta inguru fisiko batean komunitate ezberdinak sortu daitezkeela. Are gehiago, agian auzoa handiegia izan daiteke bere osotasunean komunitatea dagoela adierazteko. Hiri bat komunitate bat ez dela onartzen dugun moduan, auzoaren dimentsioa kontuan hartuta, berdina planteatu genezake. Komunitatearen eskala aurrez aurreko eta konfiantzazko erlazioak sortzeko aukera eman behar du, eta hor izaera eta tamaina ezberdineko espazioak irudikatu ditzazkegu (portala, kalea, plaza, auzoa, etab.).



Loturak. Bestalde, konfiantza hau ez dugu modu idealizatu batean ulertu behar, ez da pertsonen arteko lotura sentimental bateri erreferentzia egiten, baizik eta pertsonen arteko konpromezu edo aitortza bati. Are gehiago, lotura komunitarioetat ari garenean, hauen izaera pragmatikoa eta instrumentala nabarmendu beharko genuke. Lotura eta erlazioa sortzeko arrazoia ez da sentimental (edo ez halabeharrez), baizik eta behar konkretu bat edo batzuk asetzerara bideratua. Izan ere, jendea elkar-lotzen duten binkulo horiek mota askotarikoak izan daitezke (elkar-obligazioak, sendikoak izatea, proiektuak elkarrekin izatea, harreman ekonomikoak, laguntasuna, elkar-laguntzakoak eta nola ez

elkar-zaintzakoak). Hortaz, lotura emozionala parte hartzearen ondorioa da, ez kausa. Hau da, lotura pragmatikoen bidez, lotura emozionalak garatzen doaz.

Gertukotasuna. Lurraldetasuna eta eskala ulertzeko, gertukotasuna izan daiteke klabea. Gertukotasuna ez da derrigorrez lurraldetasunarekin erlazionatua egon behar, baina lan komunitarioaz eta gobernantzaz ari garenean, gertukotasuna bi dimentsiotan ulertuko dugu: zentzu fisikoan eta emozioalean. Pertsonak gertu egon behar dira fisikoki bata bestearengandik erlazioak sortu eta indartu ahal izateko, eta baita zentzu psikologiko eta emozionalaren ikuspuntutik. Bata eta bestea interrelazionatuta daude. Aurrekoarekin lotuta ordea, gertukotasun fisikoak loturak sortzea dakarrela defendatu dezakegu, eta honek, gertutasun edo lotura emozionala.

Egunerokotasuna. Komunitatea egunerokotasunean ematen diren erlazio era interakzio askotan sortu edota indartzen da. Erlazio hauek, pertsonaren ohiko bizi inguruan gertatzen dira, itxuraz azalekoak diren keinuen bidez (agurra, solasaldia...) edo sakontasun handiagoko erlazioen (urteetako adiskideak, bizikideak, etab.) eta prozesuetan parte hartzearen bidez. Granovetterrek (1973) landutako lotura “ahulen” balioa azpimarratuko genuke hemen.

Prozesua. Komunitatea ez da egitura edo errealitate finko bat, baizik eta prozesu aldakorra. Komunitatea errealitate performatiboa da, “praktikatu” egiten da, erlazioan dauden pertsona, talde eta elkarleen artean. Komunitatea beraz etengabeko sortze eta eraldatze prozesuan dago. Momentu eta espazio konkretu batean erlazioan dauden agente ezberdinen parte hartzearen ondorioz sortzen da. Koordenada espazio-tenporal konkretuak ditu eta etengabeko eboluzioa eta birsortze prozesuan dago.

Parte hartzea. Komunitatea “praktikatu” egiten den heinean, pertsonen parte hartzea inplikatzeko du. Parte hartzea beharrezkoa dela esateak, ez du esan nahi parte hartzeko modu konkretua dagoenik, baizik eta intentsitate eta mota ezberdinak egon daitezkeela. Zaintza erlazioetan inplikatuak dauden pertsonentzako eraldatzaileak diren moduan, erlazio komunitarioak ere berdin ulertu ahal ditugu. Hortaz, ez dugu esango laguntzaren edo zaintzaren hornitzaile/emaile eta kontsumitzaileak daudela, baizik eta parte hartzeko modu ezberdinak daudela, inplikazio modu ezberdinak, eta bakoitzak ahal duen heinean eta moduan egiten duela bere ekarpena.

Aurrekoa kontuan izanda, komunitatea hurrengo moduan ulertu genezake:

Ohiko bizi inguruan garatzen den (edo diren) prozesu erlazionala, non parte hartzearen ondorioz lotura emozionala garatzen den.

Azkenik, aipatu beharra dago solidaritatea, elkarrekikotasuna edota elkar laguntzeko

prestutasunak konponente estruktural bat daukala. Hau da, bizi baldintza materialak txarrak direnean, elementu guzti hauek kolokan jarri daitezke. Askotan pentsatu dugunaren kontra, prozesu komunitarioetan parte hartzeko aukera edo prestutasuna estratu sozioekonomiko onean kokatuta dauden pertsonen artean altuagoa izango da. Partaide batek aipatu duen moduan:

“Yo con mi sueldo de funcionaria, buenas condiciones, puedo estar por la labor, pero al que le cierran la peluquería y no puede... se va a preocupar de la solidaridad de...?” (Arlo publikoa- profesionala)

3.3. Zaintza Sareen azterketa herriz herri

Hurrengo lerroetan, ikerketa honetan aztertutako zaintza sareen aurkezpena egiten da, eta lau esperientzia hauetatik atera daitezkeen ideia nagusi edo ikasketak ere planteatzen dira.

Tolosa

Tolosan beste herri batzuen antzera oso azkar sortzen da Zaintza Sarea, Tolosa auzolanean deituko diotena. Martxoaren 14ean, larunbatez ezartzen da konfinamendua, eta ordurako mugitzen hasiak ziren. Igande gauerako 150 bolondresek emana zuten izena eta bi egun beranduago 200.

Sare sozialen bidez martxan jarri zen, bereziki *Wassap* bidez, eta hasieran herri mugimendutik gertu egon daitezkeen pertsonak sustatu bazuten ere, segituan lau pertsona osatua zegoen koordinazio mahaia bat jarri zen martxan. Mahai horretan zaintzarekin konexio berezia zuten lagunak egon ziren, nahiko perfil ezberdinekoak, aurretik ia ezezagunak euren artean eta lau herritar hauek hartu dute prozesuaren lidergoa.

Gainerako herrietako zaintza sareekin alderatua, zaintza sare honek soilik bolondresak kudeatu nahi izan ditu. Laguntzeko prest zeuden herritarrak antolatu nahi izan ditu eta ez herritarren beharrak. Hau da, herritarrek zaintza sarearen laguntza jaso ahal izateko, derrigor Udalarekin jarri behar zen harremanetan. Beste herrietan ez bezala, Tolosan ez zegoen bolondresak eta beharra zuten herritarrak kontaktatzeko modu zuzenik.

Era honetan antolatzea erabaki bat izan zen. Tolosa Auzolanean sarearen ustez, zaintzak publiko eta komunitarioa izan behar du eta hortaz, instituzioa egon beharra zuela defendatu dute hasieratik. Hau da, ez zuten Udala ordezkatu nahi, harekin

kolaboratzeko bokazioz sortu zen. “Bolondresen ejerzito bat antolatua genuen eta hura eskaini genion Udalari”. Zaintza Sarearen ustez, une horretan lidergoa Udalak izan behar zuen.

Aldiz, Udaletik garrantzi handia eman zitzaion zerbitzu profesionala eskaintzeari, pertsoneri kalitatezko arreta emateko asmoz eta jada existitzen ziren Udal baliabideen lanketa abiatuz.

Planteamendu honek, bi aldeen artikulazioa beharrezkoa egiten zuen. Lan egiteko prest zeuden hamarnaka lagun zain zeuden, inoiz bizi izan ez genuen konfinamendu egoera batean, asko beste egitekorik gabe.... Denborak eta lan egiteko moduak baina, ez dira berdinak eta egoera hain berezian talka garrantzitsuak eman ziren batzuen eta besteen artean. Zaintza Sareak ez zituen begi onez ikusi Udalaren erritmoak eta jokatzeko moduak (arautuegiak haientzat); Udalak aldiz, sortu berria zen talde baten presioa eta kritika jasan behar izan zuen, haientzat ere oso berezia zen egoera batean.

Hortik aurrera eraikitako harremana tentsio handikoa izan zen eta bi aldeen arteko mesfidantza handia izan da.

Egoera horri buelta emateko, Zaintza Mahaia izeneko espazioa sortu zen. Bi aktore hauetaz gain, aurrez Tolosan zaintza arloan zeuden eragileak egon dira. Hala nola, Gurutze Gorria, Zu eta Ni janari bankua, sortu berria zen Adinkide programako ordezkaria eta Peñaskal kooperatiba. Aurretik aipatutako zailtasunak medio, Gobernantza partekatuaren ikuspegitik saiakera interesgarria suposatu duena.

Zaintza Saretik ez zituzten bolondresak nolana ipini lanean, kalean egoteko baimenak nahi zituzten, maskarillak... Era berean, Udaletxetik segurtasun eta protokolo neurriak betez egin nahi zuten aurrera. Hauek horrela, bi aldeen artean adosten duten formula honakoa da: bolondresak aurrez zeuden eta dagoeneko ofizialak diren eragileetan txertatzea. Eraitza izugarria da, zaintza sareko 85 lagun Gurutze Gorrian hasten dira lanean, behar diren eraketak egin eta etxetara eramanez. *Adinkiden* eta *Zu eta Ni* elkartean ere txertatzen dira.

Bolondresak euren nahien arabera eragilean txertatzen dira, batzuk adinekoei deituz, besteak *Gurutze Gorriarekin* kalean... Modu batean Zaintza Sareak zubi lana egiten du, aurrez zeuden eragileen ateak bestelako publiko baten aurrean irekiz.

Konfinamendua gaituta, eragile hauen lana ez da itzaltzen. Aurrez beharra zegoen eta ondoren ere, eta beraz, etenik gabe martxan jarraitzen dute konfinamendu garaian aktibatutako bolondresak. Egun oraindik ere, lanean dihardute.

Udala eta Zaintza sarearen artean aurkitutako formula hau ez da beste herrietan eman eta beste herrietan, gehiago edo gutxiago, baina piztu eta itzali den mugimendua izan da Zaintza Sareena. Tolosan berriz, denboran mantentzea lortu dute, bai modu aktiboan bestelako eragileetan txertatuta eta baita sarea moduan ere, talde eragilea martxan da oraindik eta wasap sarean 100 bat lagun daude gaur egun.

Bestelako eragileekin egindako elkarlanaz harago, *Tolosa Auzolanean* esparru gehiagotan saiatu da eragiten. Hala nola, baserritarren azoka berreskuratzeko lanean, bitarteko digitalik ez zuten ikasleekin, 28 kanalarekin adinekoen entretenimendua helburu... Asistentzia materialaz harago joan da Tolosa Auzolanean, hasieratik geratzeko bokazioz jaioa eta egungo eredia eraldatzeko asmoz. Honek ere eragin du Udalaren eta euren arteko harremanean.

Laburbilduz, udala eta Tolosako zaintza sarearen arteko harremana tentsio handikoa izan den arren, elkarlanak fruituak eman ditu, denboran luzatu direnak gainera. Bolondresak aurrez zeuden zaintza eragileetan txertatzearen formula oso aberasgarria izan da, Zaintza Sareak zubi lana egiten baitu, eragile hauen ateak bestelako publiko baten aurrean irekiz eta konektatuz. Formula honek denboran mantentzea ekarri du.

Zaintza Sarearen lidergoa modu natural batean, egoerarekin konprometitu aktibatu ziren lau lagunek hartu dute, aurrez ia ezezagunak euren artean eta zaintzaren gaiarekin oso konprometituak. Honek ere, zaintza sarearen mantenuan lagundu du, interes berezi batek elkartu baitzituen. Bestelako herrietan aurrez bestelako esparruetan konpromiso handia zuten lagunek hartu zuten lidergoa eta konfinamendua gaindituta, aurreko eginbeharrek behartuta, zaintza sarea utzi behar izan dute.

Oiartzun

Oiartzungo zaintza sarea konfinamendua hasi bezain laster antolatzen hasi zen, *Wassap* bidez bereziki. Hasieratik, era ordenatu batean funtzionatu ahal izateko, hainbat lan talde osatu ziren: 1) aisialdia, 2) profesionalak, eta 3) koordinazioa. Horretaz gain, bolondresen taldea eratu zen eta Gipuzkoako beste zaintza sareekin koordinatzeko pertsona bat arduratu zen.

Sare honen berezitasuna Udaletxeko zinegotzi batzuen parte hartze zuzena izan da. Sare komunitarioa izanda ere, erakunde publikoko ordezkariak bertan egoteak sarea eta Udaletxearen arteko harreman naturala ekarri du. Oiartzungo herri zein Udalaren izaera berezia kontutan hartu behar da: herri txikia eta elkartegintza eta herri mugimenduekiko hurbiltasuna.

Hau dela eta, ez zen sortu aparteko koordinazio espaziorik Zaintza sarea eta

Udaletxearen artean. Herritarren behar konkretuei Udaletik erantzuten saiatu zen lehenik eta behin. Adinekoen arretarako adibidez, Udal teknikariak arduratu ziren 60 urte baino gehiagokoekin harremanetan jarri eta beraien beharrak ezagutu eta asetzeaz, Gizarte Zerbitzuen bitartez.

Asistentzia puntualetaz gain (erosketak egiteko edo etxeko garbiketa egiteko), Zaintza sarea hainbat ekimen antolatzen bideratu zen: Horrela gimnasia ikastaroak eta kultur jarduerak antolatu ziren, horretarako tokiko komunikabideak erabiliz. Udalak sustatutako genero indarkeriaren aurkako kanpainak zabaltzeko baliatu zen sarea ere.

Konfinamenduak sortutako egoera eta zaintza sareak egindakoaren balorazio oso positiboa egiten da.

Konfinamendua amaituta, sarea eten zen hein handi batean. Halere, gauzak egiten jarraitzeko gogoia badagoela antzematen da eta horren adierazle da *Kultura Birusa*, 2020ko udaran zehar herritarrentzako hainbat kultur jardura antolatu ziren Zaintza sareko kultur talde eta Udalaren artean.

Donostia

Sorrerari dagokionez, beste toki askotan gertatu zen moduan, hasieran herri mugimendutik gertu egon daitezkeen pertsonak sustatu bazuten ere, oso denbora gutxitan jatorri, testuinguru, adin-tarte etab. ezberdinetako pertsona kopuru handiak batu ziren auzo ezberdinetako sareetara. Lehen bi asteetan sareak jaso zituen dei bakarrak bolondres izan nahi zuten jendearena ziren. Donostiko kasua, hiri eskalan kokatu egiten delako, aztertutako beste lekuekin alderatuta ezberdintasun batzuk planteatzen ditu ikuspuntu global edo estruktural batetik, baina funtsean herrialde guztian zehar sortutako zaintza sareen filosofia eta ezaugarriak beretsuak aurkezten ditu.

Sarearen egiturari erreparatuz, hiriko auzo ezberdinetak sareak antolatzen joan ziren, modu autonomoan kasu gehienetan. Behin sare kopurua nabarmena zenean eta egoera pixkat egonkortu edo argitu zen momentuan, sareen arteko koordinaziorako talde bat sortu egin zen, egoerari modu antolatuan erantzuteko eta bakoitzak geografikoki noraino heldu behar zen definitzeko.

Auzo bakoitzeko sareen funtzionamenduaz haratago (kasu konkretuak ez dira aztertu eta) koordinazio taldearen eta udal langileen esperientziatik jakin dezakegu sareen eta udalaren arteko erlazioak goraberatsuak izan zirela. Udal langile eta sareen partaideen arteko elkarlanerako predisposizioa eta erlazio positiboak egon dira, baina ez da eratu

lan esparru edo espazio formal bat.

Bestalde, sare sozialek garrantzi handia izan dute komunikazioa lantzeko, bai barne funtzionamenduari dagokionez, zein kanpo hedapenera begira. Honek, ordea, pertsona nagusi eta zaugarrietara heltzeko zailtasunak planteatu zituen, eta portaletan jartzeko kartelak egin ziren. Hala ere, boluntarioak lortzeko baino laguntza behar zuten pertsonetara heltzeko zailtasun handiak egon zirela nabarmendu da. Zentzu honetan, udalarekin elkarlana oso positiboa izan zela aipatu da. Behin udalak sareekin koordinazioa hasi zuenean eta udaletik jendea sareetara bideratzen zutenean, orduan hasi zen bi esferen arteko elkarlan eraginkorra.

Sareek aurrera eraman dituzten ekintzak behar material eta instrumentalei erantzuna ematera bideratu dira gehien bat (erosketak, botikak, zaborra ateratzea, errekadu konkretuak...). Hasiera batean sarea umeen zaintzara bideratu zen, baina horrek dakarren zailtasuna dela eta, aipatutako behar instrumentalen asetzeak lan karga gehiena bereganatu zuen. Bestalde, Donostiko kasuan, arlo emozional-psikologikoan ez ziren ofizialki sartu, ez zegoen sarearen eskaintzan arlo psikologikoa modu esplizituan lantzea.

Azkenik, egungo momentuan, sareak “desaktibatua” edo dinamizatorik gabe daude. Kasu batzuetan, zaintza erlazioak mantendu egin dira pertsonen artean, baina sare moduan eskaintzen zen laguntza edo zerbitzua jada ez da ematen ari.

Erretereria

Zaintza sare publiko komunitarioa eratzeko ideia momentu berean sortu zen herritik eta udaletik. Beraz, bere kabuz bide bat egin nahi zuen jendeari, ahalik eta baliabide eta bitarteko gehien eskaintzea izan zen udalaren helburua. Sare publiko komunitarioa izan zen hasieratik, herria eta udala bat. Alderdi publikoan udalaz gain, osakidetza eta ikastetxeek ere, babes eta baliabideak jarri zituzten eta alderdi komunitarioan, herritar norbanakoez gain, babes zibilekoak, gurutze gorria eta herriko hainbat elkartek ere paper garrantzitsua izan zuten eta beraien egitura baliagarria izan zen zenbait arazo burokratikorik aurre egiteko. 500 bolondresez osatutako sarea osatu zen. Adin, genero eta perfil ezberdinetako bolondresez osaturikoa.

Lehenengo helburua argia izan zen: zaugarrienak ziren pertsonak detektatzea eta ahalik eta erantzun eta zerbitzu zabalena ematea. Pertsona zaugarrienen multzoa, adineko jendera, adin txikikoetara eta egoerean larrienean zeuden emakumeetara akotatu zen.

Adin nagusikoen artean beharra zuten pertsonen detekziorako lehenengo dei erronda horretan, astebetetz 7000 inguru dei egin ziren, 70 urtetik gorako bizilagun guztiei deitu zitzairen eta baita 65 etik gorako bakarrik bizi ziren guztiei. Udalak, boluntario bakoitzari egin beharreko deiak zein ziren zehaztu eta deiak egiteko protokolo bat osatu zituen. Bertan, elkarriketa egituratzeko helburuakin, zer galdetu, nola aurkeztu, helburuak, etab. azaltzen ziren. Dei hauen helburua, pertsona horien egoera zein zen jakin eta beraien beharrak detektatzea izan zen. Kasu askotan, pertsona hauen familiek asetzen zuten behar hau, baino bertze kasu askotan ez. Detektaturiko behar nagusien artean, erosketak egitea (janaria, botikak), zaborrak jeistea eta norbaitekin komunikatzeko beharrak azaleratu ziren.

Udalak aldeztu aurretik espero zuten adineko jendearen beharrak ideia horien bueltan egongo zirela, hori dela eta, lehen bait lehen, babes zibilekoekin (boluntarioez osatua) jarri ziren harremanetan. Lehendik ia egituratuta dagoen jendea zen, emergentzi egoeretan jardutera ohituratuak, hori dela eta, errexagoa izan zen beraiekin erosketen afera, segurtasun protokoloak errespetatuz antolatzea (ibilgailuak, aseguruak, etab.). Beraien ardura, erosketen zerrenda udaletik jaso, erosketak egin eta etxean entregatzea izan zen. Dendan udaleko diruarekin ordinatzen zuten eta gero datafono batzuen bidez kobratzen zieten eskatzaileei. Bestetik, herritar boluntarioak, jarraipena edo norbaitekin komunikatzea behar zuten jendeari, astean behin edo beharren arabera, deiak egiten hasi ziren.

Adin nagusikoen gain, zaugarrienean taldean, adin txikikoak eta ikasleak ere identifikatu ziren. Konfinamendua beraientzako erabatekoa izan zen lehenengo momentutik eta hezkuntzarako eskubidea urratuta gelditu zen zenbait kasutan. Egoera berezi horretan lehenengo urratsa, internet sarera konektatu ahal izatea izan zen, hau ahalbidetzeko, udalak 120 konexio inguru kontratatu zituen Izarkom kooperatibaren bitartez. Laguntza teknologikoaz gain, zaintza sarearen bidez, hainbat pertsona errefortzu klaseak ematen hasi ziren egoera akademikoa zailena zuten ikasleei. Hau apirilaren bigarren zatian jarri zen martxan, modu telematikoan. Errefortzuko pertsona horiek, ikaslearekin harremana izateaz gain, beraien ikastetxeko tutoreekin ere harremanetan jarri ziren.

Aipaturiko ekintzez gain, LGTBI kolektiboarekin ere akonpainamendua egin zen, baita berdintasun saileko zenbait zerbitzu birmoldatu ere, laguntza psikologikoa zerbitzua esaterako. Azkenik, momentu horretan kalean bizi zen jendearentzat espazioak abilitatu ziren. Lehendik hortarako bideratuta zegoen ekipamendua nahikoa ez zela eta, aterpe bat gehiago bideratu zen hutsune hori betetze aldera.

Sarea gaur egun lokartuta dago eta izan dezakeen jasangarritasuna epe luzera orain aztertzen ari da udala Horretarako, boluntario guztiei inkestatxo bat pasa zaie. Erantzunen ustiapena egin gabe dago baino sensazioa da badagola interesa hau berriz aktibatzeke. Oro har, sensazioa da jendea prest dagoela konfinamendu garai berri bat

badator berriro lan egiteko eta beste batzuk egoera mutur horretara iritsi gabe ere interesgarria ikusten dute sarea mantentzea.

3.4. Zaintza Sareen azterketa orokorra

Sareen sorrera

Sareak modu autonomoan sortu dira kasu gehienetan, domino efektu baten modura. Toki batean gertatzen ari zenaz ohartuta, auzo eta herri ezberdinetako pertsonak haien inguruan sarea sortzea erabaki dute. Nabarmendu genezaken lehen ideia, sareen sorrera eta antolakuntza azkarra izan daiteke. Uste guztien gainetik, zaintza sareak oso azkar hazi eta egituratu egin ziren, erantzun instituzionala antolatu baino lehenago. Oso denbora gutxitan, laguntzarako prest zeuden pertsona kopuru oso nabarmenak egon dira (300 eta 500 inguru kasu askotan) Euskal Herriko auzo eta herri ezberdinetan.

Modu autonomoan sortu izanak ez du esan nahi sorrera pentsa genezaken bezain espontaneoa izan denik, pertsona eta talde antolatuak atzetik egon diren heinean. Are gehiago, bada estrategia politiko kontziente bat izan denaren ikuspuntua, eta herri mugimendutik esfortzu nabarmena egin dela sareak sortu eta indartzeko. Azterketaren ondoren ondoriozta dezakegu, bi fenomenoak gertatu direla: Batetik, dinamika edo fenomeno sozial autonomo eta naturala izan dela; eta bestetik, elkartegintza mundutik eta bereziki herri mugimendutik fenomeno indartu eta babesteko deia egon dela.

Ondorioz, sare hauen sorreraren atzetik motibazio politiko edo ideologikoa egon dela esan dezakegu. Ez da soilik besteen zaintzaz arduratzeko bokazioz sortzen den zerbait baizik eta komunitatea, elkarlana eta parte hartzea indartu nahi duen mugimendu bat. Dinamika kontziente bat izan da, gizarte espektro antolatu eta politizatu edo ideologizatu batetik hauspotua.

Independentzia maila			
Sare komunitario autonomoa	Sare komunitario dependienteak		Sare publiko-komunitarioa
Donostia	Tolosa	Oiartzun	Errenteria
Udal eta zaintza sareen arteko harremana egokia izan denean, zaintza sarearen lana zeharo eraginkor bihurtu da. Zaintzarako paradigma berriak ireki ditu.			Lidergoa erakunde publikoaren esku egon denean, Errenteria kasu,

ZAINZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA INDARTZEN
DIAGNOSTIKO DOKUMENTUA

<p>Sareak sortzeko lana hartu zuten pertsonen dinamizazioaren lidergoan mantendu diren lekuetan, sarearen biziraupena urriagoa izan da. Izan ere, herritar hauek konfinamendu aurretik zituzten ardura eta lanetara itzuli dira konfinamendua bukatuta, zaintza sareen gaineko aktibazioa eta dinamizazioa alboratuz.</p>	<p>Haatik, sarea osatu osteko koordinazioa eta lidergoa zaintzarekiko atxikimendu berezia zuten lagunengan utzi denean, konfinamendua bukatuta ere zaintza sarearekiko konpromisoa mantendu dute, zaintza sarearen beraren biziraupena sustatuz.</p>		<p>eraginkortasuna izugarria izan da. Leku beretik kudeatzen zituzten premiak eta laguntza eskaintzak. Telefono deiekin adibidez, bolondresei esker, 8000 dei egin ahal izan zituzten bi asteetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zaintza sistema publiko komunitarioa planteatzen zuten hasieratik, baina lidergoa publikoa izanik, beste hanka, komunitarioa ez da ahaldu. - Orain, pandemiaren bigarren olatuan, hanka komunitarioa indartzeko prozesu betean daude Erreterian.
--	---	--	--

Aztertutako inguru guztietan, laguntza eskaintza baino eskari askoz handiagoa egon da. Hau da, laguntzarako prest zegoen jende askoz gehiago egon da, laguntza jasotzeko prest agertu direnak baino. Datu hau, ordea, ez du suposatzen beharrik egon ez denik eta dagoenik, baizik eta laguntza eskatzeko eta beharra edo menpekotasuna aitortzeko zailtasun handiak daudela gure gizartean.

Demanda gutxiago lotsa ematen duelako eskatzea beste arrazoi batzuen artean. (sareak)

Independentzia maila			
Sare komunitario autonomoa	Sare komunitario dependienteak		Sare publiko-komunitarioa
Donostia	Tolosa	Oiartzun	Erreteria
<p>Eskariak jasotzeko orduan, erakunde publikoaren babesa garrantzitsua izan da. Donostian adibidez, udaletxetik sustatutako deietan ematen zuten sarearen telefonoaren</p>	<p>Tolosako kasuan, Zaintza sareak bolondresak mobilizatera bideratu zen, ulertu baitzuten Udalaren lana izan behar zuela beharren identifikazioa. Honek zaildu zuen lanean hasi</p>		<p>Udalak zuzendutako sarearen funtzionamenduan, errazagoa da horren bitartez asetuko diren beharrak identifikatzea eta horren araberako deialdiak egitea</p>

berri eta kalean ipinitako bandoetan ere ageri zen. Honek zilegitasuna eman zien sareei. Gainontzean herritarrek ez dakite nori ari diren deika.	ahal izatea funtzionamendu bat adostu arte.		bolondresak inplikatzeko.
--	---	--	---------------------------

Zentzu honetan, sareek lan egiteko prestutasun eta ahalmen handia erakutsi zuten, baita antolakuntzarako gaitasun nabarmena, baina laguntza edo zaintza emateko orduan zailtasunak antzeman dira. Hau da, ez dute lortu mobilizatutako jende kopuru handiek bete dezaketen beharrik topatzea.

Zentzu honetan, auzoan erreferentzialtasuna daukaten elkarteak sarearen atzetik edo babesle moduan daudenean, sareekiko konfiantza handiagoa dagoela baieztatu egin da, eta hortaz, errazagoa dela laguntza behar duten pertsonen eskaera egitea. Kontrara, atzetik nor dabilen ez dakigunean, mesfidantza egoten da. Beraz, zilegitasun hori ez dagoenean, udalaren preskripzioa lagungarri izan daiteke, Donostian egiaztatu egin den moduan.

*Udalak ematen du segurtasun bat, bestela jendeak pentsatu egiten du, nori ari naiz ni deika... diru transferentzia eskatzen genuen, nori egingo diot...
entidade publiko batek eskaintzen zizunean hori ba lortzen genun
irisgarritasun hori. (Sareak)*

*Jendeak ez zigun bere etxera sartzen usten, ez zutelako gudan
konfiantzarik. (Sareak)*

Puntu honen harira, laguntza eskatzeko konfiantza egon behar dela ondoriozta dezakegu. Eta ildo beretik, zaintza erlazioak sortzeko, harreman orekatua egon behar da, zaintza emaile/jasotzaile logikatik at eginez. Zaintza erlazio batean inplikatua dauden sujetu denak dira emaile eta jasotzaile, eta logika horretatik abiatu behar dira zaintzarako dinamikak. Ostera, desorekan oinarrituriko erlazioak sortuko liratezke, non batzuek rol pasiboa jokatzen duten, haien balioa onartu barik. Bestalde, aipatu da ere desorekan oinarritutako erlazioak ez direla nukleo familiarretatik haratago jasagarriak, ez ikuspuntu pertsonaletik, ez sistemikotik.

Sarearen funtzionamendua eta ezaugarriak

Partaideen profilararen harira, oso talde heterogeneoak izan direla adierazi da, genero, adin, jatorri, edota ideologia ezberdinetakoak. Hala ere, partaideen gehiengoak, edota

rol aktiboagoa jokatu dutenak jende militantea eta ezkertiarra dela esan dezakegu. Generoari dagokionez, emakume kopurua pixkat gainera izan dela aipatu da, baina ezberdintasun nabarmena izan gabe. Bai nabarmendu da, ordea, elkartegintzan eta militantzia esparru ezberdinetan egon diren pertsonak izan direla hasierako lidergoa eraman dutenak kasu askotan.

Lidergo parteakua izan zen, hasieran taldeetan, elkarteetan zegoen jendea euki zuen protagonismo handiagoa, baina oso azkar bolondres sarea asko zabaldu zen. Lehen bi asteetan dei bakarrak bolondres izan nahi zuten jendearena ziren. (sareak)

Beste alde batetik, sareek behar material eta instrumentalei erantzuna eman diete gehien bat. Are gehiago, sareen sorrera, kasu gehienetan behar mota hauei erantzuna ematera lotuta egon da. Horretaz haratago, sarean parte hartu duten pertsonen artean sortutako erlazioak kasu askotan oso positiboak izan dira babes psikologikoaren ikuspuntutik, baina ez da egon sare gehien zereginen edo helburuen artean behar emozional eta psikologikoei erantzuna ematea. Aipatua izan da sarearen ahaleginetatik haratago doan kontu bat dela, eta kasu batzuetan erabaki kontziente bat izan dela esparru horretan ez sartzea. Beste kasu batzuetan ordea, arreta emozionala lantzeko ahalegina egin dela azpimarratu da, baina edozein kasutan, sareak ez dira helburu horrekin sortu.



Independentzia maila			
Sare komunitario autonomoa	Sare komunitario dependienteak		Sare publiko-komunitarioa
Donostia	Tolosa	Oiartzun	Erreneria
Zaintza sareak behar materialak asetzera bideratzen dira hein handi batean.	Zaintza sareko bolondresak, bestelako elkarteetan integraturik, behar materialak eta inmaterialak asetzera	Sareak antolatzen dituen jarduerak behar inmaterialak asetzera bideratzen diren hein handi batean, Udaleko	Behar materialak Udal zerbitzu eta 3. sektoreko eragileetatik bideratzen dira. Zaintza sarea

ZAINZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA INDARTZEN
DIAGNOSTIKO DOKUMENTUA

	bideratzen dira.	zerbitzuek bere gain hartzen dituztelako besteak. Horrela aisialdi eta elkarren arteko akonpaimendua sustatzeko ekimenak antolatzen dituzte.	akonpaimendu telefonikoa, ikas-laguntza eta bestelako jarduerak egitera bideratzen dira.
--	------------------	---	--

Bestalde, sareen elementu bereizgarrienetako bat, parte hartzeko eredu berritzaile edo ez-ohikoa ahalbidetzen dutela izan da, parte hartzeko modu ohikoez haratago. Hau da, zaintza sareak eta elkarteak parte hartzeko modu ezberdinak dira. Zentzu honetan, esan genezake, orokorrean, sareek ezaugarri bereizgarri nabarmenak dituztela. Batik bat: hierarkia edo egituratze gutxiago; partaideek sortzen eta aldatzen ari diren dinamikak direla; aurretiazko “karga” edo historiari gabekoak, etab. Gainera, parte hartzea momentu edo denbora epe konkretu batera mugatua dago, epe luzeko konpromezurik hartu gabe, inplikazio baxuko parte hartzea eskainiz (egungo gizarteak eskatzen dituen lotura ereductatik hurbilago). Honek guztiak, pertsona batzuentzat erakargarriago suertatu daiteke sareetan parte hartzeak, bere auzoan edo inguruan egon daitezkeen beste elkarteetan baino.

Independentzia maila			
Sare komunitario autonomoa	Sare komunitario dependienteak		Sare publiko-komunitarioa
Donostia	Tolosa	Oiartzun	Erreterria
	Era berean, aurrez zaintzarekin harremana zuten bestelako eragileren erakusleihen bihurtu dira. Zaintza sareko herritarrak, Tolosan kasu, premiei erantzuteko Gurutze Gorria, Adinkide edo moduko eragiletan txertatu ziren eta haietako asko oraindik ere lan horietan dihardu. Zaintza sareak apaldu diren arren, eurek piztutako boluntarioak		Parte hartze praktikoa eta eraginkorra lortu du, zuzenduena izan baita. Ahalduntze ariketarik ez da egon eta Udalak planteatzen duen erronka da, pertsonetaz gain elkarte eta eragile desberdinak integratuz.

	lanean jarraitzen dute.		
--	-------------------------	--	--

Azkenik, aipatu beharra dago sareen eta udalen arteko erlazioetan talka politiko edo partidista antzeman dela. Ezker abertzaleko udalek erreztasun handiago euki dute sareekin erlazio eraikitzaileak sortzeko, eta EAJko udalen kasuan ordea, zailtasun handiagoak egon dira. Egoera honi bi erantzun eman ahal dizkiogu, seguraski biak zuzenak: bata, sareetan lidergoa euki duten pertsona konkretuen filia eta fobia politikoak eragina izan dutela; Eta bestea, aipatutako bi partiduak, elkartegintza eta sare komunitarioekiko ikuspegi eta aitortza ezberdinak dituztela.

X-en elkarlana Udalarekin oso posiblea da baina egia da, udalen burokraziak nekatzen du. Udalen kolore politikoaren arabera, predisposizio hobea zegoen sareekin elkarlanean aritzeko.
(Admin. publikoa)

Koordinazio eta elkarlan publiko-komunitarioa egon denean, balorazioa oso positiboa da. Sareek udalaren babesa izan dutenean, hauen eraginkortasuna biderkatu egin da. Edo, beste era batera esanda, komunikazio edo erlazio publiko-komunitarioa zaila izan denean, sareen potentziala ez da garatu. Azken finean, baten gabeziak besteak bete egiten ditu. Hau da, instituzioek partaidetza sustatzeko daukaten zailtasuna, sareek erraz gainditzen dute, eta sareek izan dezaketen irismen eta zilegitasun falta, aldiz, instituzioek gainditu dezakete.

Jasangarritasuna eta sisteman txertatzeko aukerak

Orokorrean, sareek egindako lana edo behintzat aurkeztutako potentzialitatea oso modu positiboan baloratu egiten da bai partaideen zein instituzio publikoen aldetik. Nahiz eta egungo egoeran sareak “desaktibatuak” dauden kasu gehienetan, egindako lanaren kutsua geratu egin da, eta oraingoan dagoen erronka sare hauen jasangarritasuna eta zaintza sisteman txertatzeko aukerak aztertzea izango da.

Hala ere, oso eraginkorra izan da eta hori da balio duena. (Admin. Publikoa)

Emergentziatzko eta ez-ohikoa den momentu bateri erantzuna emateko sortu egin dira sareak, eta behin egoera “normaltasunera” bueltatu denean, sareak desegin edo fase latentean geratu dira. Egoera hau azaldu dezaketen arrazoi ezberdinak identifikatu dira: alde batetik, normaltasunera bueltatzean, jendeak bero ohiko eginkizunak betetzera bueltatu da, zaintzarako eta parte hartzeko denbora edo aukera txikituz edota desagerraraziz.

Bata denbora libreagatik, bakoitza bere dinamiketan hasten denean, ez dauka hainbeste denbora librerik. (Sareak)

Eta bestetik, beharra zeukaten pertsonak, haien ohiko laguntza edota zaintza erlazioak berreskuratu dituzten heinean, sareen beharra ere txikitu egin dela. Egun, dauzkagun zaintza edota konfiantzazko erlazio asko, gure auzo edo inguru komunitarioetatik kanpo edo bizi garen ingurutik at egoten dira. Hortaz, deskonfinamenduan, pertsona askok babesa jasotzeko aukera berreskuratu zuten.

Bere harremanak berriro aktikatu baitziren eta ondorioz, forma horretan erantzutea ia ez zen beharrezkoa. (Admin. Publikoa)



Honek ez du esan nahi, sareek zeregin gabe geratu egin direnik, behar ugari egon daitezkelako non sareek parte hartze handia izan dezaketen, baina behar material eta instrumentalen asetzeaz haratago joateko ez da egin aldaketarik. Aipatu beharra dago, behar material hauen asetzean, merkatuak rol inportante bat jokatzeko duela, finean bere negozioaren parte badelako kontsumitzaileak hornitzea. Honek sare komunitarioen funtzioa ez dela behar material hauen asetzera bideratu behar pentsatzera eramaten gaitu.

Hala ere, sortutako dinamika ez dira guztiz eten. Saretzeak sortu dituen erlazio asko mantendu egin dira, elkar ezagutza eta kohesioa handitu egin da edota eta beste kasu batzuetan, sareetako partaideak bolondres moduan dihardute elkarrekin ezberdinetan.

Konfinamendu ostean usturatu egin zen, bakoitza bere lanean, kontuentara bueltatu zelako. Baina hori geldita da "posoa". Baina itxi da oso bat-batean, oso azkarra izan da itxiera. (Sareak)

Bai nabarmendu dezakegu, kasu askotan, sareen gelditzea oso azkarra izan dela. Egun

edo aste batetik bestera egindako lan handia bat-batean gelditu egin zen. Ondoriozta dezakegu sareen itxiera edo eraldatze prozesua ez dela modu egokienean kudeatu. Honek ez du esan nahi, sareak hustu direnik, edo laguntzarako prestutasuna desagertu denik.

Pena jende asko sos deskolgatua gelditu dela. Segituan bukatu zen, ez dagoenez egituratua, atzera egitea ere azkarragoa da. Orduan egitura pixkat jarraitasuna emateko. (Sareak)

Sarearen gelditzea: oso denbora gutxian jende bat hustu zen. Komunikazio taldeak (whatsapp) ez dira desegin baina atsedena behar zuten. (Sareak)

Hau esanda, behin aktibatu egin den jende hori, berriro ere aktibatze aukera dagoela nabarmendu egin da. Agian ez emergentziatzko egoera baten bezala, baldintzak ezberdinak direlako, baina bai hein handi batean.

Konfinamendu garai berri bat badator edo baita modu iraunkor batean ere eta hau guztia zein baldintzatan. (...) Oro har, sensazioa da jendea prest dagoela konfinamendu garai berri bat badator berriro lan egiteko eta beste batzuk egoera mutur horretara iritsi gabe ere interesgarria ikusten dute sarea mantentzea. (Admin. Publikoa)

Independentzia maila			
Sare komunitario autonomoa	Sare komunitario dependienteak		Sare publiko-komunitarioa
Donostia	Tolosa	Oiartzun	Erreterria
Eragin handia izan dute kasu guztietan sareek, momentuko beharrak asetzeko oso baliagarriak izan direlako, parte hartzerako bide berriak ireki dituztelako eta zaintzaren gaia erdigunean jarri dutelako.			
Jarraikortasunari dagokionez, sareak desaktibatuta daude alde aurretik exisititzen diren eragileen kasua izan ezik (Auzokide-Bidebieta).	Sare bezala funtzionatzen ez badu, bolondres asko beste zaintza lanetan aritzen diren beste elkarte batzuetan integratu dira.	Sarea desaktibatu badago ere, herrian nolabaiteko posoa utzi du eta hortik ateratako ideei batzuk garatu dira konfinamendua eta gero.	Udalak berraktibatu du emaitza positobekin.

Zentzu honetan, jasangarritasunerako klabeak landu beharko dira. Zein izan daitezke jasangarri egiteko aukerak? Alegia, zein beharrei eman behar zaie erantzun? Zer nolako inplikazioa behar da? Nola kudeatu eta koordinatu? Honen harira, zenbait ideia klabe batu dira:

- 1) Beste esperientzietatik abiatuta, esan dezakegu epe motz eta ertaineko konpromezuak erakargarriagoak direla parte hartzea sustatzeko, epe mugarik gabeko edo epe luzerako prozesuak baino.
- 2) Komunitate sena mantendu, hauspotu eta zaintzeko ekimenak antolatzea beharrezkoa da mota honetako sareen jasangarritasuna mantentzeko.
- 3) Sareek erantzun behar dituzten beharren birformulaketa. Behar materialetatik, behar emozional edo erlazioaletara pasatzea. Hau, hala ere, oso zaila suertatu daiteke egungo egitura sozialaren barnean. Oro har, jendartea ez dago elkar zaintzarako prestatua, ezta menpekotasun, zahartzea eta bestelako zaugarritasun egoerei naturaltasunez tratatzeko.
- 4) Dinamika “informaletik”, “formalera” pasatzea. Askotan aipatu egin da sareen eta instituzioen arteko erlazioak modu “informalean” eman zirela, profesional konkretu eta sareetako partaideen artean. Elkarlan hau, positiboa izan bada ere, marko formal eta egituratuago bat beharko du jasangarritasunari begira.

Udalarekin elkarlan “informala” egon zen, oso gorabeheratzua. Elkarlana bai, baina lanerako espazio komunik ez zen egon. (Sareak)

- 5) Zaintza tokian-tokiko eragile komunitario eta elkarteetan txertatzea. Hau da, auzo eta herri ezberdinetan dauden eragileak (hainbat alorretan izaera komunitario hori lantzen dutena: kultura, euskara, hirigintza, jaiak...) zaintzaren gaia bereganatzea. Nahiz eta urteetan lan komunitarioa egiten diharduten, ez da ohikoa izan horiek zaintzan arreta jartzea. Zergatik ez auzo elkarteek, jai batzordeak, etab. bezalako eragileak beraien lan ardatz moduan izatea zaintza?

3.5. Lan publiko-komunitarioa

Instituzio publikoen ikuspuntutik, departamentu ezberdinak komunitate gaien inguruan dihardutelara nabarmentzen da, eta badira arlo komunitarioan adituak edota arituak diren profesionalak, baina ez dago komunitatearekiko ulermen eta marko partekatu bat. Bestalde, herritarron edota arlo komunitarioaren ikuspuntutik ere hiritartasuna ulertzeko eta parte hartzeko modu berriak behar dira. Hau esanda, nola burutu beraz, lan publiko-komunitarioa?

Ez da baliabide kontua, paradigma aldaketa baizik. Iruditzen zait administrazioek uste dutela orokorrean berak bakarrik diseinatu behar dituela zerbitzu publikoak. Dinamikak sortu behar dira, herritarren iritzia

batzen dituen. (Arlo publikoa- profesionala)

Komunitatea sortzeko proiektu lokal eta zehatzetan lan egin behar da. Honek esan nahi du, nahiz eta estrategia komun edo orokor bat izan, lan komunitarioa tokian-toki gauzatu behar dela, esperientzia konkretuen bidez. Gainera, auzo edo inguru ezberdinetan, behar ezberdinak dauden heinean, tratatu beharreko gaiak ere espezifikoa izan behar dira. Hau da, proiektuen fokoa ezberdina bada, komunitatea sortzeko edo indartzeko arrazoiak, ezberdinak izango dira. Bestalde, Instituzio publikoen eta elkartegintzaren edo komunitatearen erritmoak ezberdinak dira. Instituzio publikoek lana ordutegi, protokolo eta burokrasia finko batzuek markoan mugitu behar dira, eta nahitaez, honek talka egiten du elkartegintzak eta komunitateak behar duen flexibilitate, espontaneitate, eta hurbiltasunarekin. Praktika instituzionalek "inmunitatea" aplikatzen dute, komunitateak egiten duen kontrara. Moduak eta denborak integratu egin behar dira, bereziki administrazio publikoen aldetik, parte hartzea eta elkarlana ahalbidetzeko.

*Erritmoak oso ezberdinak izan ziren. Kosta egin zen harreman hori egitea.
(Sareak)*

Esfera publiko eta komunitarioaren arteko elkarlana sustatzeak emergentziaz edo larrialdi egoeran lan egiteaz baino haratago doan konprometua behar du. Lan publiko-komunitarioa marko egonkorra izan beharko luke, inguru bakoitzean dauden aukera eta baliabideak ezagutu ahal izateko, elkarren arteko konfiantza sortzeko, eta behar denean elkarlana burutzeko. Ondorioz, lan komunitarioarako marko instituzional baten beharra agerian geratzen da. Marko honen eraikuntza modu parte hartzailean egin beharko litzateke, jakintza eta esperientzia ezberdinak integratuz, udalak eta profesionalak daukaten esperientzia eta jakituria balorean jarritz.

Modu honetako sareak indartu eta denboran bizirik mantentzeko, iruditzen zait larrialdi garaietatik kanpo ere harreman bat mantendu behar dela boluntarioekin eta herriko eragileekin. (Admin. Publikoa)

Baina behar dugu oinarrizko ikuspegi bat. Y se tiene que construir colectivamente. (Arlo publiko-profesionala)

Zaintzarekin planteatu den bezala, lan komunitarioa ere transbertsala da. Zentzu honetan, udaleko departamentu ezberdinetan integratua dagoen printzipio eta lan egiteko modu bat izan beharko litzateke, eta ez departamentu soil edo espezializatu batek aurrera atera beharreko enkargua. Ildo berean, ez litzateke baliabide berririk jarri

beharko, baizik eta daudenak egiteko beste modu bat integratzea. Argi dago, komunitateekiko erlazio edo ardua handiagoa daukaten departamentuak daudela, gizarte zerbitzuak kasu, baina erronka partekatua da. Nabarmentzekoa da ere, departamentu feminizatuenak direla arlo komunitarioarekin erlazio handiena dutenak, eta eztabaida honetan interes handiagoarekin sartzen ari direnak.

Bestaldetik, herrigintza edota komunitate eraikuntza despartidizatu egin beharko litzateke. Askotan, mesfidantza ugari aurkitzen dira bai instituzio publikoetatik prozesu komunitarioekiko, zein alderantziz. Eta mesfidantza hauek, kasu askotan lehia politiko-partidista batetatik ulertu daitezke. Honek ez du suposatzen komunitatea edo prozesu komunitarioak despolitizatu behar direnik, hauek sujetu politikoak direnean ezinbestean, baizik eta lehia hortatik haratago kokatu behar dela eztabaida eta lan publiko-komunitarioa.

Despolitizar o despartidizar lo comunitario, eta herri mugimendua. Administrazio publikotik erresistentziak egon dira. “badakigu nondik datorren, nortzuk diren...”(Arlo publikoa-profesionala)

Elkarren arteko mesfidantza eta distantzia egon zen. (Sareak)

Egon behar da agintarien partetik aldaketa bat. Askotan, haiek dira mesfidatiago herritarrak baino. Utzi beharko lukete konfiantza eta erabaki gunean usteak eta beldur asko ematen die, beren posizioa galduko dutelakoan. (Sareak)

Orduan da kontrola galtzearen beldurra. Haien kontrolpean ez dagoena beldurra ematen die. (Sareak)

Honekin erlazionatua, aitortu egin da batzutan administrazio publikoek beste eragile edo agenteek egindako lana gutxietsi izan dutela. Normalean publikoaren zentralitatea edo hegemonia gailendu egiten da besteen lanaren gainetik, egungo gizarteak planteatzen dituen arazo konplexuei erantzuna emateko gizartea osatzen duten agente guztiekin lan egin behar dela ahaztuz. Eta modu berean, herri mugimendutik ere instituzioekiko mesfidantza eta zilegitasun eza existitu da. Instituzio publikoek, kasu honetan udalek, daukaten zilegitasuna eta lidergoa ere aitortua izan behar da.

No dejamos de negar a otros. (Arlo publiko- profesionala)

Gure erreakzioa da kritikatzeta. Baina egiten dutena desagertu balitzateke, ezingo genuke dauden beharrei eman. Behartzen gaituzte gure agenda

mugitzera, eta hori ona da. (Arlo publikoa- profesionala)

Logikoa bada ere, komenigarria da gogoraraztea esfera publiko eta komunitarioaren arteko erlazioak elkarren aitortza eta errekonozimendutik hasi behar direla. Kasu batzuetan aipatu izan da ez direla eman erlazio positiboak eraikitzeko oinarri minimoenak. Honek ez du esan nahi talka edo gatazka egon behar ez denik, baizik eta eztabaida eraikitzailea izan behar dela, bakoitzak bere espaziotik defendatu behar duena kontrajarriz.

Lehenek eta behin eman beharreko tratua errespetuzkoa izatea eta egiten duten lana balioan jartzea eta merezi duten errekonozimendua ematea behar beharrezkoa dira. (Admin. Publikoa)

4. Ondorioak

Ondoren aurkezten diren ondorioak bi ataletan banatu egin dira: batetik, zaintza sareen inguruko iruzkin batzuk azaltzen dira, aurretik jada azaldu dena laburbilduz; eta bestetik, zaintza ekosistema publiko-komunitarioak eratzeko bidean nabarmentzekoak diren gai ezberdinak planteatzen dira, txosten osoa borobilduz.

4.1. Zaintza sareen inguruko ondorioak

Sorrerari dagokionez, Zaintza sareak oso azkar sortu eta egituratu ziren, leku askotan erantzun instituzionala antolatu baino lehenago. Sare sozialek, whassapak bereziki, ekarpen handia egin zuen sareen sorrera eta lehen egituraketan. Sareak oso heterogeneoak izan dira leku gehienetan. Jatorri, testuinguru eta adin tarte ezberdinetako herritar kopuru handia aktibatuz. Haatik, hauen sorreran eta dinamizazioan, -hasierako unean bereziki-, elkartegintza mundutik eta herri mugimendutik indar berezia egin da.

Lidergoa erakunde publikoaren esku egon denean, Errenteria kasu, eraginkortasuna izugarria izan da. Leku beretik kudeatzen zituzten premiak eta laguntza eskaintzak. Telefono deiekin adibidez, bolondresei esker, 8000 dei egin ahal izan zituzten bi asteetan.

- Zaintza sistema publiko komunitarioa planteatzen zuten hasieratik, baina lidergoa publikoa izanik, beste hanka, komunitarioa ez da ahaldundu.

- Orain, pandemiaren bigarren olatuan, hanka komunitarioa indartzeko prozesu betean daude Erreterian.

Sareak sortzeko lana hartu zuten pertsonen dinamizazioen lidergoan mantendu diren lekuetan, sarearen biziraupena urriagoa izan da. Izan ere, herritar hauek konfinamendu aurretik zituzten ardura eta lanetara itzuli dira konfinamendua bukatuta, zaintza sareen gaineko aktibazioa eta dinamizazioa alboratuz. Haatik, sarea osatu osteko koordinazioa eta lidergoa zaintzarekiko atxikimendu berezia zuten lagunengan utzi denean, konfinamendua bukatuta ere zaintza sarearekiko konpromisoa mantendu dute, zaintza sarearen beraren biziraupena sustatuz.

Zaintza sareek jaso dituzten deia ia gehienak bolondresenak izan dira. Sare sozialen bidez sustatu dira batik bat, eta hauek ez dira kolektibo zaugarrienetara iristeko bide onenak (adinekoak, adin txikikoak...). Portaletako kartelak ipini arte, Donostian adibidez, eskaintzak bakarrik jaso ziren, ez eskariak. Ondorioz, eskariak jasotzeko orduan, erakunde publikoaren babesa garrantzitsua izan da. Donostian adibidez, udaletxetik sustatutako deietan ematen zuten sarearen telefonoaren berri eta kalean ipinitako bandoetan ere ageri zen. Honek zilegitasuna eman zien sareei. Gainontzean herritarrek ez dakite nori ari diren deika.

Zaintza sare gehienak premia materialei aurre egiteko sortu ziren (erosketak egin, zaborra bota, botikak erosi...). Bolondres gehienek ere halako egitekoak nahiago zituzten hasiera batean. Haatik, lehen aitzaki materiala medio, harremanak sortu dira herritarren artean, sareak zaintza in-materialen espaziora eramanez. Komunitateak zaintzan izan dezakeen funtzio nagusia gainera, behar in-materialei erantzuna ematean datza.

Azkenik, Udal eta zaintza sareen arteko harremana egokia izan denean, zaintza sarearen lana zeharo eraginkor bihurtu da. Zaintzarako paradigma berriak ireki ditu.

4.2. Zaintza ekosistema publiko-komunitarioak eraikitze bidean.

Zaintza gizakion ezaugarri nabarmenen eta beharrezkoena dela aitortzen badugu, hauek politika publikoen helburu bihurtu beharko lirateke. Instituzio publikoen ikuspegitik honek suposatzen du zaintza zeharkako politika bat izan behar dela, sail, departamentu, etab. guztietan txertatua dagoena. Berdintasuna lortze bidean egiten ari denaren antzera (bien arteko erlazio handia izanik gainera), zaintza politika publiko ororen mugarri izan beharko litzateke.

Zaintzan parte hartzen duten esfera eta agente ezberdinek (Estatua, merkatua, hirugarren sektore, komunitatea eta familia) funtzio gehigarriak daukate. Hau da, bakoitzak besteak baino modu egokiagoan kudeatu ahal ditu zaintzaren esparru edo

behar ezberdinak. Ez da lan honen helburua eskera eta agente bakoitzaren funtzioa zein izan behar den definitzea, baina bai behintzat printzipio orokor eta muga batzuk argi euki behar direla azpimarratzea. Osterantzean, komunitatearen papera aldarrikatzen denean, publikoak diren erantzukizunak norbanakoetan edo familietan deskargatzearen arriskua egon daiteke. Hortaz, modu sinplifikatuan, erantzukizun publikoko zaintza sistema komunitario batean, Estatuak dauka behar materialen asetzearen erantzukizuna eta enkargua (merkatuaren eta Hirugarren Sektorearen laguntzarekin), eta familiak eta komunitateek behar inmaterialen asetzearen enkargua hartuko lukete.

Testu honetan aipatu dugun bezala, **komunitateak zaintzan izan dezaken funtzio nagusietako bat, agian nagusia, behar inmaterialeri erantzuna ematean egongo da.** Paradoxikoki, aztertutako zaintza sareak ez dira hortarako sortu, eta nahiz eta kasu askotan babes emozionala eta psikologkoa eman duten, behin behar materialak desagertu direnean, ez dute haien eginkizuna aldatu behar horiek erantzutera. Identifikatu daitekeen erronka nagusietako bat beraz honetan dihardu, nola berregituratu sareen funtzioa behar materialetatik behar inmaterialetara pasatzeko, sisteman funtzio eraginkorragoa euki dezaten. Aitortu beharra dago, behar materialak betetzea errazagoa dirudiela behar inmaterialak betetzea baino. Konfiantza maila handiagoa behar da, erlazio egonkorragoak, eta baita denbora gehiago. Ez da berdin enkargu edo mandatu zehatz bat betetzea, edo kalitatezko denbora edo solasaldi bat eskaintzea. Bai suposatzen duen denboragatik, zein eskatzen duen inplikazio pertsonalaren aldetik. Hala ere, aipatu da behar materialak asetzearen bidez, erlazioak sortzen doazela, eta hauek gutxinaka behar inmaterialen asetzera hurbildu gaitzakela. Egungo eskema materiala, inmaterialeranzko bektorea izan daiteke.

Antolaketaz haratago, **zaintzarako premia dugula publikoki onartzea oso zaila da gure gizartean.** Zaintza familiaren erantzukizuna denaren ustea oso errotua dago gurean eta laguntza eskatzea inguru hori ez dugula publikoki onartzea dakar. Bizitzako une orotan zaintza behar dugula naturalizatzeko lana egin behar da eta bide honetan zaintza harremanak ezin dira zaintza hornitzaile eta kontsumitzaile dikotomian ulertu. Horiek gainditu eta konfiantzako harremanak garatzen ez ditugun bitartean zaila izango da zaintza sistema publiko komunitarioa osatzea. Zaintza dinamika publiko komunitarioak ezartzeko dauden zailtasunak beraz maila sistemiko batean kokatu ditzazkegu, bi multzotan banatua:

Batetik, zaintzaren gaineko balore eta kreentzia hegemonikoak: Lehen talde honetan kokatu ditzazkegun oztopoak, zaintza familien erantzukizuna delaren ideari egiten diote erreferentzia. Ideia tradizionalista honen inguruan eraiki diren kreentzia eta korpus ideologikoak oso errotuta dago euskal gizartean, ongizate sistema mediterranean abian dagoen beste herrialdeetan bezala (ikusi, besteak beste, Comas d'Argomir, 2015; Martínez-Buján, 2014; Rodríguez Cabrero, 2016).



Bestetik, muga sistemiko edo estrukturalak: Bigarrenak, ordea, abian dagoen sistema produktibo-erreproduktiboa zaintza ezkutuan uztearen ondorioz sortzen dira. Egungo sistema kapitalista heteropatriarkalak pertsonok zaintzarako daukagun denbora eta prestutasuna mugatu egiten du. Zaintza, prekarizatua, feminizatua eta ezkutatua geratzen da. Ez zaio daukan balioa eta zentralidadea ematen ez ikuspegi indibidual zein sistemiko batetik.

Zaintza sistema komunitario bat gauzatzeko bidean asko izango dira eman beharreko pausuak, bai arlo publikoaren aldetik, zein herritarron partetik. **Erantzukizuna beraz partekatua izango da, instituzioen eta herritarren konpromezua behar du, baina arlo publikoa da lidergoa eraman behar duena zaintza sistemaren aldaketa bilatzen ari bagara.** Dударik gabe, herritarren inplikazioa eta parte hartzea beharrezkoa izango da, baina arlo publikotik aldaketa bultzatu beharko da, besteak beste beharrezkoak izango diren baliabideak jarriz. Pentsatu dezakegunaren kontrara, zaintza sistema komunitario bat eraikitzea baliabideak inbertitzea edo behintzat daudenaren berrantolaketa.

Ibilbide honetan, kontuan izan behar dira beste elementu batzuk, hiri edo herrien dimentsioa bezala, edota aldatu beharko diren beste zenbait, egungo muga instituzional eta normatiboak bezala. Lehen hauen harira, egungo egitura instituzionalek arlo komunitarioarekin lan egiteko zailtasun handiak dauzka. Eginkizun publikoak dakarren protokolizazioa, zurruntasuna, inmunitatea, etab. Dinamika komunitarioekin erlazioa oztopatu egiten dute, eta are gehiago, pandemiak ezarri duen kontestuan, non beldurra eta ezjakintasuna izan diren nagusi.

Pandemiak zaintzaren inguruko hausnarketa eztabaida politikoaren erdigunean kokatu egin du. Zaintza, menpekotasun eta zaugarritasun egoerak etab. kezka handia sortu dute gure gizartean eta errealitate hauen inguruko sentzibilizazio maila nabarmena da momentuan. Era berean, zaintza sareen sorrerak beste hausnarketa bat ekarri du, herri mugimenduaren eta dinamika komunitarioen balioa eta potentziala norainokoa den. Nahiz eta egun sareen egoera “latentea” den, gertatutakoaren hotsa ez da gelditu, eta behin egiaztatu dena, alegia, babes eta laguntza komunitarioaren balioa, errazagoa izango da beste behin horrelako dinamikak errepikatzea.

Arrazoi honengatik, **zaintza tokian-tokiko eragile komunitario eta elkarteetan txertatzeko momentu aproposa dela planteatzen da.** Hau da, auzo eta herri ezberdinetan dauden eragileak (hainbat alorretan izaera komunitario hori lantzen dutena: kultura, euskara, hirigintza, jaiak...) zaintzaren gaia bereganatzea. Nahiz eta urteetan lan komunitarioa egiten diharduten, ez da ohikoa izan horiek zaintzan arreta jartzea. Zergatik ez auzo elkarteek, jai batzordeak, etab. bezalako eragileak beraien lan ardatz moduan izatea zaintza?

Azkenik, testuan jada aipatu den moduan, **sareen elementu bereizgarrienetako bat, parte hartzeko eredu berritzaile edo ez-ohikoa ahalbidetzen dutela izan da,** parte hartzeko modu ohikoez haratago. Hau da, zaintza sareek eta elkartegintzak parte hartzeko modu edo aukera ezberdinak dira. Zentzu honetan, esan genezake, orokorrean, sareek ezaugarri bereizgarri nabarmenak dituztela. Batik bat: hierarkia edo egituratze gutxiago; partaideek sortzen eta aldatzen ari diren dinamikak direla; aurretiazko “karga” edo historiarik gabekoak, etab. Gainera, parte hartzea momentu edo denbora epe konkretu batera mugatua dago, epe luzeko konpromezurik hartu

gabe, inplikazio baxuko parte hartzea eskainiz (egungo gizarteak eskatzen dituen lotura erduetatik hurbilago). Honek guztiak, pertsona batzuentzat erakargarriago egin dezake sareetan parte hartzeak, bere auzoan edo inguruan egon daitezkeen beste elkarteetan baino.

Bibliografía

- Bell, D y Pahl, K. (2018). Co-production: Towards a Utopian Approach. *International Journal of Social Research Methodology*, 21(1), 105–117. doi:10.1080/13645579.2017.1348581.
- Comas-d'Argemir, D., (2015). “Los cuidados de larga duración y el cuarto pilar del sistema de bienestar.” *Revista de Antropología Social*. 24: 375-404. DOI: 10.5209/rev_raso.2015.v24.50663.
- Daly, M and Lewis, J (2000). “The Concept of Social Care and the Analysis of Contemporary Welfare States”. *The British Journal of Sociology*, 51(2): 281-298.
- Fantova, F. (2014). *Diseño de políticas sociales*. Madrid: CCS.
- Gilligan, C. (2013). *La ética del cuidado*. Barcelona: Fundació Víctor Grífols i Lucas.
- Granovetter, M. (1973). The Strength of Weak Ties. *American Journal of Sociology*, 78(6), 1360-1380. Retrieved January 21, 2021, from <http://www.jstor.org/stable/2776392>
- Karagkounis, V. (2019): Austerity, social work and the rediscovery of community work, *European Journal of Social Work*. DOI: 10.1080/13691457.2019.1654434
- Klein, R., & Millar, J. (1995). Do-It-Yourself Social Policy: Searching for a New Paradigm? *Social Policy & Administration*, 29(4), 303–316. doi:10.1111/j.1467-
- Martínez-Buján, R (2014). “Los modelos territoriales de organización social del cuidado a personas mayores en los hogares.” *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 145: 99-126.
- Osborne, S. (2018). From Public Service-dominant Logic to Public Service Logic: Are Public Service Organizations Capable of Co-production and Value Co-creation? *Public Management Review*, 20(2): 225–231. Doi:10.1080/14719037.2017.1350461.
- Rodríguez-Cabrero, G. y Marbán, V. (2016). “La atención a la dependencia en una perspectiva europea: de la asistencialización a la cuasi-universalización.” En Del Pino, E., y Rubio, M. (eds) *Los estados de bienestar en la encrucijada. Políticas sociales en perspectiva comparada*. (317-338). Madrid: Tecnos.

Suarez-Balcazar, Y. (2020), Meaningful Engagement in Research: Community Residents as Co-creators of Knowledge. *Am J Community Psychol*. DOI:10.1002/ajcp.12414

Tobío, C., Agulló, M., Gómez, M., & Martín, M., (2010). *El cuidado de las personas. Un reto para el siglo XXI*. Barcelona: Fundación La Caixa.

Vega, C., Martínez-Buján, R. y Paredes, M. (2018). *Cuidado, comunidad y común. Experiencias cooperativas en el sostenimiento de la vida*. Madrid: Traficantes de Sueños.

Ward, P., S. Banks, A. Hart y Pahl, K. (2018). Conclusion: Imagining Different Communities and Making Them Happen. En: S.Banks y A. Hart (eds.), *Co-producing Research: A Community Development Approach* (pp. 203–209). Bristol: Bristol Policy Press.